



Gertuan

Fundazioa

Gertuan Fundazioa
Memoria 2021




Gertuan Fundazioa

2021. urtean aldaketa garrantzitsuak eman dira gure fundazioan, horregatik izan da urte oso berezia.

Babes Fundazioa, **Atzegi** adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako Elkarteak 1983an sortu zuenetik 38 urtez, «Atzegi Babes Fundazioa» izenez ezagutu baldin bagaituzte ere, orain,

deitura eta irudi korporatiboa aldatu dugu. 2021eko azaroan «Gertuan Fundazioa» izena hartu genuen, izena eta logoa aldatzarekin batera.



Deitura eta irudi korporatiboa aldatzeaz gain, fundazioaren egoitza soziala ere aldatu dugu. Orain, Donostiako (Gipuzkoa) Morlans pasealekuko 14. zenbakian aurkitzen gara.



Morlans Pasealekua 14
20009 Donostia



943 05 10 95



gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus



Bestalde, desgaitasuna duten pertsonen tutoretzaren arloko lege aldaketak markatutako urtea ere izan da.

2021eko irailean, **ekainaren 2ko 8/2021eko tutoretza gaitako Legea sartu zen indarrean. Lege zibil eta prozesalaren erreforma honek, desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa osatzeko ematen zaizkien laguntzak zehazten ditu.** Erreforma honek, termino edo kontzeptu batzuk aldatu egin ditu, **“desgaitasun juridikoa” desagertzearekin** batera. Horrela, 2006ko abenduaren 13an New Yorken onartu zen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren oinarri eta printzipioetara egokitu da ordenamendu juridikoa.

Nazioarteko tratatu honen 12. artikuluan, **desgaitasuna duten pertsonen, gainerako pertsonen bizitzako alderdi guztietan dituzten baldintza berberetan jarduteko gaitasun juridikoa dutela aldarrikatzen da.**

Izan ere, konbentzioak jasotzen duenaren arabera, **akordio honen helburua, pertsona guztien giza eskubide eta oinarrizko askatasunak, babestu eta gozamen osoz sustatzea da, baldintza berdinetan eta hauen duintasun eta errespetua sustatuz.**



Gertuan Fundaziotik, erreforma honen eta konbenzioaren printzipioekin bat eginez, Gipuzkoan babesgabatasun egoeran dauden eta adimen edo garapen desgaitasuna duten pertsonak behar dituzten tutoretza izaerako laguntzak ematen ditugu.

Fundazioaren esku-hartzea **pertsona bakoitzarentzat laguntza-sistema judiziala ezarri ondoren zehazten da. Laguntza-sistema horretan, epaileak zehazten du zer laguntza behar dituen, baita laguntza horiek bere premiekiko ea proportzionalak diren ere, betiere bere borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz.** Horrela, pertsona hauei aholkuak eta beren bizitzarako garrantzitsuak izan daitezkeen erabakiak hartzerako orduan, laguntzen jarraitzen dugu hauen proiektu pertsonala garatzen, pertsona bakoitza beren bizitza ibilbideko protagonista izanik.


Erreforma horren ondorioz, desgaitasuna duten pertsonen tutoretza gaitan, desagertu egin dira tutoretza figurak. Aurrerantzean, **KURADORETZA** izango da tutoretza-izaerako instituzio judiziala.

«Babesten dugun pertsona da garrantzitsuena»

Aurten ere, fundazioak laguntzen dien pertsonak, etxebizitzarako, aisialdirako, okupaziorako eta lanerako hainbat baliabideen zerbitzuak erabili dituzte, asko **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin** itundutakoak, eta erreferentziazkoak diren hainbat erakundek kudeatutakoak. Hauek guztiek duten **konpromiso eta prestutasunagatik, esker ona adierazten diegu beste behin: Atzegi, Gautena, Aspace, Fundación Goyeneche, Uliazpi fundazioa, Aita Menni, Gureak, hirugarren adinekoen egoitzei, etabarri.**

Hurrengo grafikoan, fundazioak laguntzen dien pertsonak bizi diren baliabideen arabera ordenatutako datuak ikusi daitezke. Azpimarratzekoa da ehuneko handi bat **Atzegiko** etxebizitzetan bizi

dela, eta %21 bakarrik edo bizi independenteko programak lagunduta. %10a **Aita Menni** ospitalean eta egoitzetan bizi da, eta gainerakoak **Aspace**, **Uli-azpi** eta **Gautenaren** beste etxebizitzetan bizi dira, besteak beste.



ETXEBIZITZA BALIABIDEAREN ARABERAKO GRAFIKOA

**«Eskaintzen ditugun laguntzak, di-
mentsio pertsonal batetik lantzen
ditugu, pertsona bakoitzaren nahi,
desio eta beharretara egokituz»**





**B
A
L
O
R
E
A
K**

Konfiantza

Gertutasuna

Duintasuna eta errespetua

Konpromisoa eta ardura

Gardentasuna

Talde lana

Kalitatea eta berrikuntza

Datuak


2021ean zehar, **guztira 178 pertsona** artatu ditugu.

178 **146 TUTORETZAK/KURADORETZAK**
7 BESTE FIGURA JURIDIKOAK
25 AURRETUTORETZA/BALORAZIOAN

- Fundazioaren ardurapeko tutoretza/kuradoretza duten 146 pertsona.
- 7 pertsona, beste figura juridiko batzuekin (defendatzaile edo administratzaile judizialak).
- 25 pertsona aurretutoretza edo balorazio prozesuan.

Aldi honetan bertan, heriotzagatiko baja 1 eta beste 5 baja eman dira. Azken hauekin, dagokion balorazio-prozesua egin ondoren, dagozkien laguntzak, familiak eskaini diezazkiekeela erabaki da.


BABES FUNDAZIOTIK LAGUNTZA EMATEN DIEGUN PERTSONAK




Nori laguntzen diegu

1983ko abenduaren 28an Babes Fundazioa sortu zenetik, Gipuzkoako desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten eta babesgabetasun-egoeran zeuden eta laguntza eman diegun pertsonen kopuruak gora egin du pixkanaka-pixkanaka.


Hurrengo grafikoan, Fundazioari esleitutako kasuen kopuruak azken 38 urteetan izan duen goranzko bilakaera ikus dezakegu.




KARGU JUDIZIALAK DITUZTEN KASUAK FUNDAZIOAREKIN EGON DIREN DENBORAREN ARABERA



AZKEN 10 URTEETAKO ALTAK ETA BAJAK




ADINA



18-40 urte 41-65 urte


65 urte baino gehiago

GENEROA



Gizonak Emakumeak

BEREN ETXE PROPIOAN BIZI DIREN KASUEN BILAKAERA, TUTORETZA BETETZEN DUGUN KASU GUZTIEKIKO



Gure lana

Gertuan Fundazioak babesgabetasun-egoeran dauden adimen eta/edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri tutoretza izaerako laguntzak ematen jarraitzen du, inolako diskriminaziorik gabe.

Horren guztiaren helburua pertsona horien ongizatea bermatzea eta zaintzea da, beren autonomia eta independentzia pertsonala garatzeko behar dituzten aholkuak eta laguntzak emanez.

Horretarako, honako hauek osatzen duten giza taldea dugu:

- 14 patronatukide.
- Fundazioko kide diren 11 profesional.
- Fundazioak kontratatutako kanpoko zerbitzuetako profesionalak.
- 44 pertsona boluntario.

Nor arduratuko da nire seme-alabaz, ni ez nagoenean?

2021ean 37 etorkizuneko konpromiso sinatu ditugu. Hauek guztiak, desgaitasun intelektuala edo/eta garapen desgaitasuna duten pertsonen senideen artean formalizatutakoak dira, haiek falta direnerako.

37 ETORKIZUNEKO
KONPROMISOAK

**«...zer izango da nire seme-alabez
ni ez nagoenean?...»**



Etengabeko hobekuntza

Aldaketa-urte honetan jarduera bizia izan dugu gure Fundazioa osatzen dugun familiaren prestakuntzan, batez ere lege-erreformarekin zerikusia duen horretan.

Horregatik, eta gure laguntzak ahalik eta modu eraginkorrenean eman ahal izateko helburuarekin, **Gertuan Fundazioko** profesionalen eta patronatukideek hainbat prestakuntza-jardunaldietan hartu dute parte. Bestek beste:

- Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa gauzatzen laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzeari buruzko jardunaldiak.
- Prozedura judicial berriei buruzko jardunaldia.
- Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea izateari buruzko jardunaldia. Esperientzia-trukea.
- Erabakiak hartzeko laguntzari buruzko ikastaroa, **I-Decide** metodologia.
- Erabakitzeko eskubideari buruzko estatuko kongresua.

- Taldean lan egiteko eta erabakiak hartzen laguntzeko jardunaldia.

- Datuak Babesteko Lege Organikoari buruzko oinarritzko ikastaroa.

- Gaixotasun mentala duten pertsonen arretari buruzko ikastaroa, kudeaketa emozionaletik.

- Etikari buruzko ikastaroa, desgaitasun intelektuala eta/edo garapen desgaitasuna duten pertsonen ordezkartza-erabakiak hartzeko.

- "Calidad Plena", **Plena Inclusión Euskadiren** jardunaldiak.

Horrez gain, 2021eko irailean **Gertuan Fundazioak** hizlari edo ponente gisa hartu zuen parte, **Hurkoak** eta **Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco** batera antolatutako desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko mekanismo berriei buruzko «erreforma zibila eta prozesala» izeneko, udako ikastaro batean.

Boluntariotza Gertuan Fundazioan

Boluntariotza funtsezkoa da gure Fundazioak eskaintzen dituen laguntza-prestazioen eredu.


Boluntarioek aktiboki hartzen dute parte gure Fundazioaren misioan, laguntza jasotzen duen pertsona bakoitzarekin pertsonalki harremanuz, haien gaitasunak eta ongizate emozionala indartuz, konpromiso etiko eta solidarioarekin.

Banakako laguntzak izan ohi dira, eta bi pertsonen arteko lotura honek, laguntza naturalen sarea hobetzen du, **desgaitasuna edo garapena duen pertso-**

nak beste pertsona batzuekin gizarte-harreman esanguratsuak izan ditzan. Hala, boluntarioak desgaitasuna duen pertsonarekin sortzen duen harremana esanguratsua eta oso adierazgarria da bi aldeentzat.

2021ean, Covid-19ak sortutako mugak erlaxatuz joan dira eta horri esker, harreman horiek berriz ere aurrez aurrekoak izan dira. Honek maizago elkartzeko aukera sortu du berriz ere. **2021eko abenduaren 31n 44 boluntario zeuden gure familian.**

BOLUNTARIOAK



2021eko hito garrantzitsuak

DEITURA ETA EGOITZA ALDAKETA ETA IRUDI KORPORATIBO BERRIA

Aurten izan dugun aldaketa garrantzitsuenetako bat, hasieran adierazi dugun bezala, izena, egoitza eta irudi korporatiboa aldatzea izan da.





Gertuwan

Filipzina

LANKIDETZA HITZARMENA INMAKULADA IKASTETXEAREKIN: PRESTAKUNTZA DUALA

2021ean lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dugu Tolosako **Inmakulada Ikastetxearekin**. Horren bidez, Gizarteratzeko lanbide-heziketako moduluko ikasle bat, urtebetez prestakuntza dual bat egiten ari da gure erakundearen, desgaitasun intelektuala eta/edo garapen desgaitasuna duten pertsonen laguntzen.

Akordio horretaz gain, hiru lankidetzeta egin ditugu ikastetxearekin. Gure lanari buruzko informazioa emanez, tutoretzaren arloko prozedura juridikoei buruzko hitzaldiak eman ditugu. Hitzaldi horietan desgaitasun intelektuala duten pertsonen parte-hartzea sustatuz, gure errealitatea ikastetxe horretako ikasleengana hurbiltzeko aukera izan dugu, gurekin boluntariora egiteko aukera eskainiz.

ESPAINIAKO TUTORETZA-FUNDAZIOEN ELKARTEKO TUTORETZA-FUNDAZIOEN ARDURADUNEN XV. JARDUNALDIA

Gertuan Fundaziotik, aurren, Espainiako Elkarteko fundazioen arduradunen jardunaldian parte hartu genuen berriz. Jardunaldi horretan, Legearen erreformari eta erakunde hori osatzen duten fundazioen etorkizuneko erronkei buruz eztabaidatu zen.

GERTUAN FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA

2021 amaieran, Fundazioaren Patronatuak estatutuak aldatzea onartu zuen, izena eta egoitza soziala aldatzeaz gain, sozietatearen helburua indarreko lege-aldaketaren ondorengo tutoretza izaerako laguntzak ematearen errealitatera egokituta.

GERTUAN FUNDAZIOAREN BIDEO KORPORATIBOA EGITEA

Urtean zehar, fundazioaren bideo korporatibo bat egin dugu. Bideo honek, desgaitasuna duten 5 pertsona ditu protagonista. **Gertuan Fundazioak** laguntzen dien pertsonak eta gizartea gure errealitatera hurbiltzea du helburu.

Youtubeko Gertuan Fundazioaren orrian bertan ikusgai dago aurten egin dugun bideo korporatiboa, baita fundazioaren webgunean ere:

https://youtu.be/-k5_HRvgjY







Datu ekonomikoak

Ekonomiaren arloan, egoitza beraren egokitzapen, ekipamenduak eta deitura aldaketak markatutako urtea izan da aurtengoa. Hala ere, emaitza orekatu batekin itxi ahal izan dugu.

Positiboki nabarmendu behar da **Gipuzkoako Foru Aldundiako** Gizarte Politiketako Sailak emandako laguntza ekonomikoa, ezinbestekoa izan baita egitura profesionalari eusteko eta egoitza berriaren obrari aurre egin ahal izateko.

Bestalde, nabarmentzekoa da **Once Fundazioak** egoitza berria ekipatzeko eskainitako laguntza, baita urte berezi honetan gure erakundearekin lankidetzan aritu diren **Laboral Kutxak** eta **Donostiako Udalak** emandakoa ere.



EMAITZEN KONTUA

	2021	2020
Jarduera propioagatikako erakundearen diru sarrerak	553.734 €	492.328 €
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	33.674 €	25.340 €
Pertsonal gastuak	446.809 €	394.873 €
Ustiapeneko beste gastu batzuk	132.984 €	117.547 €
Ibilgetuaren amortizazioa	35.042 €	8.522 €
Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapitaldiru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	44.184 €	8.522 €
USTIAPENAREN EMAITZA	16.757 €	4.420 €
FINANTZA EMAITZA	674 €	-6.788 €
EKITALDIKO EMAITZA	-5.877 €	-2.368 €
EKITALDIAREN EZ OHIKO EMAITZA (*)	17.431 €	-2.368 €

(*) Legatu baten ondorioz emandako ezohiko diru-sarrera baten emaitza.

Kontu hauek, Sagma Auditores S.L. kanpo enpresa batek auditatutako kontuak izan dira.